

ortzadar

larunbata, 2014ko martxoaren 8a. 346 zenbakia

deia.com

euskal kulturaren kolore guztiak

BIZITZAZ ETA BERE GELTOKIEZ


Aukeran konpainiak male-
tak oholtzara eraman eta
bizi-bidaia jarri du dantzan

-- 4-5. orrialdeak --

ZERRENDA LUZE ETA 'KOLORETSUA'

Jada sarean da euskal musi-
karen urtekaria. Entzun! eta
Harrobia Lantzen-en esku

-- 6. orrialdea --



LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK

saski-naski

ATARIA

Jauja



LUXUE APAOLAZA

FIKZIOEK, bistan ez ditugula ere, oroi-menaren zokoren batetik errealitateak girotzen dizkigute. Hala, goizetan bulegora iristen naizenean, *donde trabajo como si fuera tonta, pero Dios y el botones saben que no lo soy* (Gloria Fuertesek idatzi bezala), negarrez, oihuka edo higigarriak errez hasi beharreen, barne barretxoak egin ditzaket, eta zin dagit, *The Office* britainiarrek islatzen duen testuingurua umore txikienez ere bizitzeko, tele-saila ikusi behar da.

Metroan noala Daumierren irudiak ikusten ditut eta La Caixaren kutzazain urdinetik kolore bereko Picassoren koadroren bateko pertsonaia ikusten dut irtetzen. *Aupa Etxebeste!* memoriara etortzen zait *Atrapado en el Tiemp*on bizi banintz bezain etengabe inguruko askoren ez dutena antzezteko esfortzuen aurrean; hori bere bizitza babesteko disimuluan bizi den *Dexter* inaktibo bat sentitzen ez naizenetan. Madrileko Plaza Nagusitik behera gona pausua kutsatzen zait eta Fortunata manerak hartzen ditut, eliza atariatzen Guillerminak bilatzen ditut benefizentzia bat eraikitzeko diru eske, eta XIX. eneko orrialdeetan

jarraitzen dut elizetako komedoreen atarietako jende ilaren ikuskizunaren aurrean. Hogeigarren mendean egin zuten gaur egun Lavapies auzora iritsi eta bere migrante, bere saltzaile legez kanpoakoak... neurri handian azaltzen dizkidan *Surcos* pelikula, 50eko hamarkadan.

Pasa den asteburuan irakurri nion Angel Errori iragarki batean Whitmanen aipua ikusi zuela eta sortu zitzaion ezinegonaz; nik *Ligeresaren* azken *komunikazio* estrategiaren berri izan dudanean sentitu dudanak Foster Wallacen ipuin bihurtu du estrategia horren berri ematen zuen testua. *Monologas*, non hiru aktore ezagunek, emakumeak, *kontzilio familiarraz, lanaz, seme-alabez, dietez, gimnasioez eta teknologia berriez emakumezkoen ikuspuntua proiektatzen baitute*—hau hitzaldi bat balitz gaiak errepikatuko nituzke, hemen ez dut lekuri—. Hori guztia emakumeok gure buruaz barre egin dezagun, bizi gaitzen konplexu gabe, kulpa sentimendu gabe baina baita gure buruak zaintzeari uko egin gabe ere. Ni testuaren puntu honetan nire identitate sexualaz zalantza handiak izaten hasita nengoen (baina hori beste kontu bat da; edo ez hainbeste); berriaren mezua, ze antzerki

eta ze barre, azken lerrotan zegoen. Guretzat. Emakume konplexu gabeontzat. *Ligeresa* markapean maionesak, margarinak, saltsak, kremak, zopak eta marmeladak komertzializatzen dira. *Espainiar merkatuko lehenengotako light* marka izan zen.

Light. Foster Wallacek marken irribarre plastikozkoaren atzean estrangulatu zaitu eta nahia-go izan dut Brueghel Zaharraren *Jaujaren herrialdea* koadrora salto egin, baina pinturaren kondenaik gabe, loditu nahian, lodi loditu, nire buruari beharrea gorputzarekin munduari barre egitea horixe izan daitekeenez gaur egun; (egia esan, arauak eskatzen duena baino argalago nago pairatzen ditudan haserre konstanteak direla eta: gogoratzen duzue Fernán Gomezen disertazioa *Belle Epoque* pelikulan? Bataioak marka ezabazina ematen duenez, ezin elizaren kontra jo, ezta desertatu ere, oinetan zuen oztoporen batek soldadu izatetik libratu zuenez; azkenik, matrimonia ere nahigabe errespetatzen zuen, emaztearekin baino tentetzen ez zitzaionez. *Rebelde, infiel, y libertino por naturaleza, y viviendo como un circunspecto burgués* dio; ni berdin, gorputzarekin barre egin nahian, eta hezurretan, serio).

Mezua azken lerrotan zegoen. Guretzat. Emakume konplexu gabeontzat. 'Ligeresa' markapean 'light' maionesak, saltsak eta zopak komertzializatzen dira

SALDUENAK

Fikzioa

1. Nevadako egunak

Bernardo Atxaga. Pamiela.

2. Bizitzaren atea dukegu heriotza

Joxean Artze. Elkar.

3. Inurrien hiztegia

Mariasun Landa. Pamiela.

4. Lasai, ez da ezer gertatzen

Ana Malagon. Elkar.

5. Hobe isilik

Garbiñe Ubeda. Elkar.

6. Pasio krimena

Fernando Morillo. Gaumin.

Ez Fikzioa

1. Hitzunpolisa

Jon Sarasua. Pamiela.

2. 1512. Nafarroaren konkistaren ondorioak

Jean Louis Davant. Txertoa.

3. E.H.-ren historia laburra

Iñaki Egaña. Txertoa.

4. GAL, 30 urte

Eider Goenaga/Berria. Elkar.

5. Eusebio Osa. Belaunaldi baten lekukoa

Pako Sudupe Elortza. UPV/EHU.

6. Lauaxeta/Lizardi/Lete

Anjel Lertxundi/Anton Valverde. Pamiela.

ERAKUSLEIHOA

ELEBERRIA 'Erraiak'

Danele Sarriugarte Mochales. Elkar. 16,85 euro.



POESIA 'Poemak pluralean'

Fernando Pessoa. Txertoa. 144 orr. 14,95 euro.



GAZTE LITERATURA 'Xildas'

Antonio Manuel Fraga. Garbiñe Ugarte (itzul.). Sushi books. 220 orr. 12 euro.



Barrunbeetan barrena, aurreiritziez aske

Bikote haustura mingarri bat du abiapuntu; emakumezko baten kontakizuna bakarrik iritsiko zaio, ordea, irakurleari, obsesio bihurtuta. Horregatik, ez ohiko intentsitatez barneratu da idazlea pertsonaiaren barrunbeetan, erraiak agerian utziz, ez bere buruaren ez inoren aurrean biluzteko lotsarik gabe. Aurreiritzirik gabeko bane bakarriketa batean murgilduta, protagonistak ordura arteko bere bikote harremanak xehatuko ditu, inoiz utzi ez duten mamuen aurrez aurre jarritz.

Etortzeke diren belaunaldi pluralak

"Izan zaitetz plurala, unibertsoa bezala", zioen Fernando Pessoa, eta halakoxea izan zen haren unibertsoa: ahots ugariak (heteronimoak), kontraesan bezala (iritzi-anabasa), duda-mudazkoa (egonezina). Poesia heteronimo nahiz ortonimoaren bilduma hau pluraltasun horren erakusgarri da. "Oraindik etortzeko den belaunaldi batekoa nauzue", idatzi zuen Pessoa, igarri ezinik belaunaldi batekoa barik belaunaldi sail batekoa izango zela.

Bizileku baten bila Xildas iratxoarentzat

Sesgañako marinel herrian, eguneroko bizitzak ez dio fantasiaz tokirik uzten. Egun batean, Catuxak, bederatzi urteko neska bihurtu batek, Xildas izeneko iratxo ezustean aurkitzen duen arte. Ulises eta Uxía bere lagunekin, eta are Vicente bere etsaiarekin batera, Catuxak plan bat asmatuko du Xildasi bizileku berri bat aurkitzen laguntzeko. Bien bitartean, Izan jaun ez-atseginak kontuak eskatuko dizkio Catuxari bere jabetzan gertatuko bihurtzeriengatik.

ZALDI EROA



Editorial Iparragirre S.A.

Zuzendaria: Bingen Zupiria
Ardura: Iñaki Mendizabal Elordi (mendi@deia.com)
Koordinazio lana: Amaia Santana (asantana@deia.com)
Diseinua: Jesús Santamaría
Maketazioa: Naroa Etxebarria
Zuzenketak: Iratxe Gaztañaga
Portada: Ignacio Urrutia
Lege Gordailua: BI 1720-06



Gehigarri honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK ·


dantza

Arteek bat egiten duten geltokia

Donostiako Victoria Eugenia Antzokian estreinatuko du **Aukeran** konpainiak ‘Geltokia’ ikuskizuna, hilaren 13an. Metaforak dantzan jarri dituzte. “Bizitza

tren bidaia bat da, geltoki askorekin”. Ekipajeak ere badu balio sinbolikoa. “Norberak bere maletan darama bizitza osoa: gauza onak, txarrak, frustrazioak”

 JON ANDER URKIAGA EGIDAZU

 50eko hamarkadan girotuta badago ere, “kontzeptu aldetik nahiko garaikidea da”, Edu Muruamendiaren zuzendariaren esanetan. ‘Geltokia’k beste berrikuntza batzuk dakartza. Esaterako, estreinakoz erabiliko dituzte bideoak oholtzan. KLIC

GARRANTZITSUENA ez da izaten trenbideak non hasiten diren eta non bukatu jakitea, trenera igotzeko geltokiak non dauden jakitea baino. Eta geroz eta tren geltoki gehiago egon, orduan eta errazagoa izango da trena hartzea, edo bertatik jais-tea. Azken batean, hori bera da bizitza Edu Muruamendiaren (Bergara, 1964) Aukeran dantza konpainiako zuzendariaren ustez. Eta hor du abiapuntua dantza konpainiaren *Geltokia* lan berriak. “Bizitza tren bidaia batekin konparatu nuen, eta bidaia horietan geltoki asko daude. Gure bizitzan ere geltoki asko daude, eta geltoki horietan, batzuetan jendea gure trenera igotzen da, eta gurekin segitzen du bidaiak bukatu arte; beste batzuk, aldiz, beste geltoki baten jaisten dira”.

Bizitzan harreman mota asko dagoela uste du bergararrak, batzuk onak, beste batzuk txarrak, eta hori dena geltokien bitartez irudikatu du ikuskizun berriari. Maletari ere garrantzi berezia eman die oraingoan. “Alde batetik, maletak *attrezzo* moduan erabili nahi nituen, baina, bestetik, bakoitzak bere maletan zer daukan erakutsi nahi izan dut. Norberak bere maletan darama bere bizitza osoa: gauza onak, txarrak eta frustrazioak, adibidez”.

Aukeran dantza konpainiak euskal dantza tradizioan du oinarria, eta hortik abiatutako koreografiak ikusiko ditu ikusleak *Geltokia* dantza ikuskizunean. 1997an sortu zen taldea Donostian, eta “Aukeran taldeko jendeak badaki nondik abiatzen den”. Euskal dantza du oinarri, beraz, Gipuzkoako taldeak, baina ukitu



garaikideek presentzia nabarmena dute bere ekinaldietan. *Geltokia* ikuskizuna, esate baterako, 50eko hamarkadan girotuta dago, baina kontzeptu aldetik “nahiko garaikidea da”. Muruamendiaren hitzetan, ikuskizunean agertzen diren koreografia guztiak eta irudi guztiak oso freskoak dira, “gure garaikoak dira”. Eta gipuzkoararen irudiko, horrek adierazi nahi du, beharbada, dantza garaikideko pasarteak geroz eta maizago erabiltzen dituela Aukeran dantza taldeak, “eta ikuskizun honetan nabaritu da hori”. Besteak beste, Eneko Alkarazekin [dantza garaikideko aholkularia] lan egin dutelako: “koreografia batzuetan beste zentzu bat eman diogu gure dantzari”.

Baina, hala ere, taldeak orain arteko biderei jarraitzen diola adierazi du zuzendari eta koreografoak. Nahiz eta berrikuntzaren bat edo beste ere aurkituko duen ikusleak; izan ere, lehen aldiz erabiliko dituzte bideoak, istorioa bera kontatzeko. Horrela,

“hasiera eta amaiera daukan istorio bat” sortuko dute dantzariak.

ELKARLANA GOLDATUZ Dantza ikuskizunean entzun ahalko den musikari dagokionez, “oso musika hunkigarria eta polita da” taldekideak dantzan jarriko dituen, “eta horrek ukitu desberdin bat ematen dio ikuskizunari”. Xabier Zeberio sortu ditu ikuskizunaren zutabeetako bat izango diren 12 abestiak. Horietako hiru Zeberioaren aurreko disko batetik hartutakoak dira, baina gainontzeko bederatzia obra honetarako beren-beregi sorturikoak dira. Doinuen interpretazioaz Alos Quartet laukotea arduratu da. Baina dantza emanaldietan ez dute zuzeneko musikaririk eskainiko, “ekonomikoki ez delako posible”.

Elkarlanaren fruitu da *Geltokia*. Horren beste adibide bat gidoia bera da. “Joan zen uztailean, Lekeitioan ikuskizun bat prestatzen nengola Miren Agur Meabe idazlea agertu

zen bertan, eta buruan bueltaka neukan ideia baten berri eman nion. Bizitzaren inguruko zerbait nahi nuela adierazi nion, lau zati izango zituen zerbait; hau da, jaiotza, gaztetasuna, heldutasuna eta zahartzaroa neuzkan buruan, edo, parekoa diren udaberria, uda, udazkena eta negua”. Asmoak zeintzuk ziren azaldu ondoren, iraileko lehen egunetan idazle lekeitiarrak gidoia bidali zion Muruamendiari, eta “horrela hasi zen proiektua”. Bergararraren hitzetan, gidoi horren arabera sartu dituzte dantzak eta irudiak obran.

Dantzaren bidez kontaturiko istorio bat da *Geltokia*, eta hori horrela izanik, antzerkitik ere zerbait izango du emanaldiak. Dantza konpainiako zuzendariaren arabera, aurten lan handia egin dute taldekideek, antzerkiaren mundu horretan apur bat sartzeko. “Eszenaratzea desberdina izango da. Dantzari bakoitzak bere pertsonaia edo bere nortasuna izango du, eta hori nabari da ikuskizunean. Azken hilabeteotan Kike Santiagorekin [eszena zuzendaria] aritu izan gara lanean, eta antzerkiko arau batzuk irakatsi dizkigu”. Dantza egiteaz gainera, agertokian *egon* behar dutela adierazi du Muruamendiarek: “Uste dut nabaritu dela antzerki pixka bat ere egiten dugula; gainera, erabiltzen ditugun irudiek ere ematen diote ikuskizunari antzerki puntu hori”.

GAZTETASUNA BIZIGARRI Dantzari talde finkoa osatzen dute Aukeran dantza konpainiakoek. Hala ere,


“Eszenaratzea desberdina da. Dantzari bakoitzak bere pertsonaia du eta hori nabari da ikuskizunean”, dio zuzendariak



JOSEBA ERKIAGA ERREJIDOREA

ANE ZABALA

“Eszenatokiak su hartu zuen behin eta nik amatatu behar izan nuen”



Ondo ezagutzen du Bilboko **Arriaga**; publikoak ikusten duena eta butakatik ikusten ez dena ere bai. Antzokiak ez du sekreturik berarentzat eta besaulki-patioa da bere lekuri kutunena

JOSEBA Erkiagak 25 urte daramatza Bilboko Arriaga Antzokiko errejidore lanetan. Ezkutuko lana da berea; eszenatoki-kobazterean eta antzezlaren libretoa atrilean duela, *atzeko aginduak* ematen ditu. Isiltasuna eskatzen du ikuskizuna hasi baino lehen: bere lana zaratarik gabe egin behar du.

Agerian jarri zaitugu; ezkutuko lana da zurea, ezta? Eszenatokiaren koordinazioa da nire ardurua, bai teknika aldetik, bai antzezleen lanaren aldetik: noiz sartu behar diren hauek, noiz hasi, noiz sartu argia, etab., dena ordenan egoteko.

Atrila, libretoa eta entzungailuak, horiek dituzu oinarritzko lanabes?

Bai, aktoreek bezalaxe, nik ere ikasi behar dut antzezlana. Zuzendariak eskatutako mugimendu guztiak ditut apuntatuta.

Beraz, Arriaga Antzokira datozen konpainiekin harreman zuzena duzu.

Bai, haiek dira *nagusiak*, esaten duten guztia egin behar dugu eszenatokian. Gero, oholtzan ni naiz *nagusia*: antzezlana hasi bezain pronto nik agintzen dut, kar, kar!

Besaulkitik ikusi ez, baina zure ahotsa oso ezaguna egiten zaio ikusleari, ez da hala?

Istorio zaharra da hori, lan hau egiteko ez zegoen inor. Niri tokatu zitzaidan hasierako abisuak ematea... eta gaur arte.

Ikuskizuna gelditu behar izan duzue noizbait eta

mikrofonotik abisuren bat eman behar izan duzu?

Behin, mediku bat eskatu behar izan genuen, eta bi doktore zeuden antzokian, zorionez. Egun, larrialdietako mezu gutxi ematen ditugu. Duela gutxi, *El mundo de la luna* operan, orkestra greban zegoen eta ez zen inor etorri. Arazoa azaldu behar izan nuen, baina, azkenean, pianista batek jo zuen eta konpondu zen.

Gaur egun 'desfibriladorea' duzue pasilloetan?

Bai, bi daude, bata teknikoentzat eta bestea ikusleentzat, badaezpada ere.

Ikusleriak barneratuta du antzerkian telefonoa itzailita eduki behar duela?

Badaezpada birritan esaten dut, baina beti egoten da *despistaturen* bat. Sarri, gainera. Ez litzateke txarto egongo mezuari kasu egingo baliote.

Urte guzti hauetako anekdotaren bat izango duzu, ezta?

Jakina, baina horiek kontatzea konpromisoa da, kar, kar! Esaterako, behin opera bat egiten ari ginela, eszenatokiak ia sua hartu zuen eta ni atara behar izan nintzen amatatzera.

Errejidorea ere urduri jartzen da antzezlana hasi baino lehen?

Ez luke jarri behar... Baina, bai, inori ez diogu esaten baina urduri jartzen gara. Edonola ere, gu lasai egon behar gara aktoreei eta abeslarietara lasaitasuna transmititzeko.

Inoiz aktoreen bati testua ahaztu eta lagundu behar



“Birritan esaten dut telefono mugikorra itzaltzeko, baina beti egoten da *despistaturen* bat. Sarri, gainera”, dio.

JUAN LAZKANO

izan diozu?

Aspaldian ez, baina batzuetan egin izan dut. Adibidez, zarzuela edo operaren batean noizbait tokatu zait testua eman behar izatea.

Eta aktoreen bila ere joan behar izan zara aldageletara?

Hori ere askotan gertatu zait, bai.

Kanpoko konpainiekin arazoak izaten dituzue hizkuntzarekin?

Batez ere errusiarrekin izaten ditugu arazoak. Zaila izaten da ulertzea, nahiz eta azkenean beti konpontzen garen. Dena den, kanpotik etortzen direnean, euren errejidorea ekarri ohi dute.

Osasuntsu dabil Arriaga Antzokia?

Bai, urte osoko programazioa dauka eta ikusleriaren erantzuna ona da. Antzerki kultura handia dago, baita tradizio handia ere bai.

Ikuskizuna bukatzen aktoreek txaloak jasotzen dituzte, baina zuentzako ere dira txalo horiek, jaso egiten dituzue?

Entzun bai, baina ez ditugu guretzako jasotzen. Txaloak ez dira guretzako izaten. Behin, opera batean oso aldaketa ona egin genuen, orduan bai izan ziren guretzako txaloak.

Eszenatoki aurrean jartzera ausartuko zinateke?

Atzean egotea gustatzen zait. Ikuskizunak aurretik ikusteko dira, horretarako egiten dira.

artez
euskara zerbitzua



itzulpenak • hizkuntza aholkularitza • papergintza



www.artez.net
posta@artez.net
944 480 000